

Elkarrizketa

Mikel Laboa edo bikoiztasunaren kharma

BADA Laboa bat sotila, maitagarria egiten dena; mundu guztia maite duela, mundu guztiak maite duena. Haur haundi baten mainak ditu, edo aitona gazte baten itxurak. Dorpea da eszenan, pausaje baldresez, kitarra bastoi bezala harturik ateratzen da, eta beso nekatu bat altxa eta saludatu ondoren, fokok argitzen dutenean, aura miresgarri batez jazten da. Paperak galdurik edo deskuido z jendaurrera irtendako aktore baten trazak ditu. Ezagutuko ez bagenu, *mikroa konektatzera doan elektrezista izango duk*, pentsa genezake. Despiestearen zinuua darama aurpegian idatzirik eta koitaduen tankerarekin konfundi daitekeen apaltasuna dario alde guztietik. Portaera guzti horien arrazoi izkutua bere sensibilitate apartean datza eta barrenean daraman bigarren pertsonaia baten pisuan. Laboa gizatiar hori beti bigarren planoan mantentzen da, barruan daraman bigarren pertsonaia erraldoi horri lehentasuna eman nahirik edo. Metamorfosia, kantatzen hasten den momentuan gertatzen da. Mikroaren aurrean plantatu eta doi-doi kantaren izenburua ahoskatzen du. Berea ez da hitzegitea. Berea, presa baten indarrarekin barrenean pilatzen zaizkion sentimenduei kanporako bidea egitea da. Orduan Laboa aldatu egiten da. Maiz hizkuntzak berak ere enbarazu egiten dio eta mintzairaren oinarrian diren jatorrizko hotsen bila abiatzen da. Zintzurra bortxatuz, orroak, arrantzak, asperenak, garraxiak, hizkuntz mediatizatu gabeko espresio

bideak entsegatzen ditu edo mendeen denborak ondu dituen kanta fosilizatu zaharretara jotzen da, hats berri batez iraganeko artista anonimoen poema epikoei, amodiozkoei, sinpletasuna izkutatuz urteek ezarri dien hautsa kentzeko. Mikelek abotsaren alderdi espresiboak landu ditu, ez literaturarekin, eta bere poeta adiskideen lanaz ere baliatzen da gaurko jendearen sentipen larri nahiz gozoak aldarrikatzeko.

Eszena gainean bere burua transformatzeko eta bidenabar jendea hipnotizatzen Mikelek maizuki darabilan barita majikoa abotsa da. Ironia, umorea, maitasuna eta beste sentimendu guztien gainetik samurtasuna adierazten du, ternura haundi baten espresio da eta, alderantziz, gorrotoa, sentimendu epikoak eta trajikotasuna, maiz sentipen negatibo bezala hartzen ditugunak, adierazten ditu motelenik. Gogora bestela, Bertold Brecht-en poema epiko bat erreziatzerakoan, bere abotsak duen kamustasuna.

Nostalgia haundien pizgarri bilakatzeko den abots horri esker, hel gaitzke Mikelen barruko unibertsoa.

Elkarrizketa inposible baten historia

Hainbesteko tartea dago kanpoko Laboa afable horren eta eszena gainean transformatzen den ezdarri aunitzeko munstroaren artean, ze bata beste espikatzen orduan inkompatibilitate problemak sortzen baitira. Kanpoko Laboari galdera estupidoak zuzenduz gero,

barruko Laboa kezkatzen da, eta horiek kontu zaharrak direlako, isildu egiten dira. Mikelek errepikanaren sindromea sufritzen du eta inoiz esandako leloak berriro esateak erraiak nahasten dizkio. Alderantziz, barruko Laboa izkutuari galdera sakonak zuzenduz gero, buruan pilatzen zaion ideia matzari hari punta bat bilatzen hasten da, monosilabo batzuk artikulatzen ditu, baso ardoari trago berri bat jo edo mahai gainean dagoen kroketa platora darama eskua. «Nahi baduzue, beste egun batetan, patxada gehiagorekin bilduko gaituk. Kontuok ezin dituk ordu pare batetan edozein moduz bantilatu. Guk esan beharrekoak kantatuz esan zetiagu. Eta zaila duk urteetako lana ordu batzutan espikatzea», eta aitzakia luzeetan galtzen da. Agudo konturatzen da bat, artista baten aurrean mirespena edo eszeptizismoa direla jarririk lojikoan, eta kreakuntza razionalizatu nahirik egiten diren galderak lekuz kanpo direla.

Antiguako taberna batetan gaude eta hogeitaka urte hotsen unibertso bat eraikitzen pasatu dituen artista honen aurrean inkomodo sentitzen naiz. Bera ere desgustora sentitzen da. Badaki disko berri bat kaleratzeak gisako murrizkak dakartzala. Kazetari inpertinenteei ere kunplitu nahi luke eta... baina ez da borondatea bakarrik aski unibertso pertsonal horren eta eguneroko aktualitate arruntaz kezkatutik den langile baten arteko zubia eraikitzeko.

Mikel Laboa definikaitza da eta kontraesanon zamarekin bizi da

gizartearen bitartean. Bakar-deadean edo eszena gainean bere baitako indarrak askatzen dituean, ordea, libre sentitzen da.

Azken diskoa Llach-ekin batean Euskadiko lau hiriburutan emandako ikuskizunaren emaitza izan zen neurri haundi batetan. Diskoak ez zuen Laboaren sketch harrigarrien neurriak eman, emaldi hartan Mikelek izkutuaren beste alderdi baten errebeldia burutu baitzuen, aktore izatearena. Hizkuntza desberdinekin jokatu, mintzaira bakoitzari goputza mugitzeko manera berezi bat dagokiola demostratu zuen Laboak, eta, eszena gainean, hain definitorioa zaion gorpuzkera, erori eta malgua, pertxeran utzi eta nahi bezala mugitzen dakiela frogatu zuen, bere miresle asko eta asko txunditurik utziz.

Disko berrian lehengo bidetara itzuli da berriro. Bere ohizko hiru frentek landu ditu, kanta zaharren alorra jorratu du, gaurko poetak musikatu ditu, Sarrionandiaren koblak, Leteren bi poema, eta Atxagaren «Lizardi» tango bat eskainiz, eta, bukatzeko, bi lan esperimental inkluitu ditu, txalaparta eta hizkuntzarekin jokatu, eta aurreko diskoetan baino areago musika instrumentalak leku pribilejatu bat irabazi du. Txalapartak inoiz ez bezalako hots garden eta garbia lortu du, behingoz bere tankera toskoa eta landu gabea galduz. Inaki Salbadorrek maiz gazte bat dela erakutsi du pianoarekin, eta Laboak elementu guztio-kin eta bere abotsarekin joku malabar egiten dakien magoa dela.

Bada Mikel Laboa bat guztiz asekieblea dena, edonoren aurrean maskara kendu, eta den horretan azaltzen dena; pausaje dorpe samarrez eszenara igo eta bere presentzia hutsarekin jendea poltsikoan sartzen dakiena. Mikrorra hurbildu eta kantari ekiten dionean, ordea, Laboa horrek bigarren bati uzten dio lekua. Artistak okupatzen du eszena eta orduan zaila egiten da bere helgaldi bitxiari jarraitzea. Gizonaren eta jenioaren arteko bikoiztasun hori dela kausa, zaila egiten da berarekin hitzegitea. Ondoko hau elkarrizketa frustratu baten historia baizik ez da. Mikelen fuertea kantatzea da. Erantzunak bere diskografian dira, datorren astean kaleratuko den LP berrian, esaterako.




urtez urte

Donostiako Parte Zaharrean jaio zen 1934ean. Geminis. Aita PNVko kontzejala. 36an Bordelera esilatu zelarik, ama Lekeitiora doa zazpi seme-alabarekin. Mikelek Gernika desegiterra zihozan abioiak ikusi zituen egun batez zeruan. Gertakari honen oroitzapen ilunaz baliatuko da «Gernika» diskoan izen horretako kanta burutzeko. Sei urtetara arte euskara bakarrik zekien arren, bere hizkuntza galduko du Donostian, eskolan. Hamabost urterekin Marisol ezagutuko du, gaurko emaztea. Euskal girorik ez. Parte Zaharreko soziedadeetan kantatzen zen euskaraz, eta etxean jaiegunetako bazkalostetan. Juan Jose Lasa izeneko koinatu bat medikua zuen eta kitarra jotzen zekien («tengo una ametralladora bonita y brillante», gerrako kantak). Hamazazpi urterekin Mikelek ere

kitarra erosi eta medikuntza ikastea erabakitzen du. «Jango luke» taldea sortzen dute ikastetxean. 20 urterekin Ataulporen diskoa erregalaten diote. Lau urte geroago Brassens ikusten du zuzenean. Mikelek jaialdi benefiko batetan hartzen du parte Iruñeko Gayarre antzokian, ingelesez eta frantsesez edo gisako zerbaitetan kantatuz, normalki kanta sudamerikanoak erabiltzen badiu ere. Euskaraz ikasten hasiko da. Adiskide batek bestaldeko jendeari zuzenean grabaturiko kantak uzten dizkio. Iruñean medikuntzako klase praktiko batetan gazte nafar bat dakarte klasera, bere gaitzaz galdegin diezaioeten. Ez du hitzik erantzuten Mikelek euskaraz galdetzen dion arte. Abertzaletasuna sendotzen da. Zaragozan lehenbiziko aldiz Iparragirren kantak eta Iparralde-

koak abesten ditu jendaurrean. Barcelonara doa espezialitate egi-tera. Katalan hutsez eginiko jaialdi batetako giroaz txunditurik gertzen da, eta, Donostiara itzultzean, Jorge Oteizaren itzalpean «Ez dok amairu»ren oinarriak jartzen dira. 64ean grabatzen du lehen diskoa. «Oh Pello, Pello...». Ordurako Labegueriek «Haurtxo, haurtxoa» atera zuen. 66an bigarren diskoa. Arestiren «Egun da Santimamiñe» eta «Apur dezagun katea»rekin problemak zentsurarekin. Bertold Brecht. Urte berean hirugarren diskoa. «Zilbor estea». Herriz herri jaialdiak eta «Ez dok amairuren» espantsioa. Lehendik poesia dekoratiboaren bidetik lantzen hasia zuen linea esperimentalean entsegu berriak egingo ditu. «Lekeitio» izenekeo diskoen serieari hasiera emanez.



Joxean AGIRRE